



Iturria: *Bertsolaritzaren historia II*, (Patri Urkizuren edizioa). Etor, 1991.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/ElizanburuJBKoplak.htm>

KOPLAK

Jean Baptiste Elizanburu

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

MARIA

Bertzek erran baitute
Nik baino lehen
Hainitz adituz dela hainitz ikhasten,
Uzte dut on den
Nik dakidan bezala guziek arren
Jakin dezaten...
Beraz aipha dezagun Maria nor den.

Aztal biribil eta
Zangar ertsia,
Eskuaren beteko zango bihia
Ttiki ttikia,
Golkoz aberats eta larden gerria,
Erne begia...
Nolako panpina den horra Maria!

Erle bat da Maria
Etxe-barnean
Eta landan oro bat hari lanean
Behar denean.
Aphaintzeko pulliki behin astean.
—Noiz?... Igandean.
Uztai beharrik ez du soinaren pean.

Solas alegera bat
Erranagatik,
Irri freskorik baizik ez dut izan nik
Maria ganik.
Adiskidekin ez du handitasunik,
Bainan hargatik,
Ez erran Mariari solas arinik.



Mariak baratzetik
 Badu berea,
 Udan eta neguan lorez bethea
 Errekarte.
 Bere loren artean erdi gordea
 Gaxo maitea!
 Bera da pullitena hango lorea.

Mariak baldin badu
 Moltsa joria:
 Merkatura goateko badu saskia,
 Xuri-xuria.
 Arroltze lau dotzena, oilasko bia,
 Salduz guzia,
 Zertako den aberats horra Maria!

Jendek erranik ere
 Hala eta hola...
 Maria batzuetan, ez jakin nola,
 Goibel dagola...
 Bertzetan nigartto bat jausten zaiola...
 Zer zaio axola?
 Baluke nahi balu aise konsola.

Igandetan Maria
 Zinez panpina,
 Zapata xabalekin soinmotx urdina,
 Berak egina,
 Elizako bidean arin-arina;
 Mila sorgina!
 Errege baldin banitz zer erregina!

ERI ALEGIAZKOA

Erran duzun bezala, Grazien maitia,
 Eritasun bat badut nik hainitz handia,
 Mafrundi eta sukhar, bat eta bertzia,
 Deus handirik eztuk, bainan gosetia.

Gaitzak ninduenean ondikotz! sesitu,
 Nere biziak nuen betikotz etsitu,
 Biharamunean nintzen ohean gelditu,
 Jeiki nintzenekotzat bazen apetitu.

Barraiatu zenean gaitzaren berria,
 Guziek nahi zuten ikhusi eria,
 Batek erraiten zuen triste da begia,
 Bertan haren ondotik gaitza da handia!

Eriak memento hartan zer zuen pentsatzen,
 Adiskide maitia, ez dautzut erraiten,
 Gaitza nere baitharik oraino urrun zen,
 Ezen pausatu nahiz gelditua nintzen.

Jeiki eta jua behar zen infirmeriara,
 Bainan han sartzekotzat behar zen papera,
 Eman zautanean beraz Leontrek afera,
 Juan nintzen berehala erien etxera.

Athea ideki eta nik zer dut ikhusten
 Boltexur bat lasterka ni ganat heldu zen,
 Halto, adiskidea, ez duzu aditzen,
 Pasaportetik gabe ez da hemen sartzen.

Nik orduan sakelan sartzen dut eskua,
 Eta atheratzen dut paper galdatua;
 Erraiten dudalarik: Oi, mila debrua!
 Nongo presondegian othe nauk sarthua?



Boltexurra heldu da kadira batekin,
 Eta erraiten darot: Jar zaite hor, Pattin!
 Nik berriz erreposta: Mila esker, Kattalin!
 Othoi fite zatozkit gosariarekin.

Oren baten buruan, huna boltexurra,
 Jauna, zer plazer duzu tisana ala ura?
 Ixil zaite, Kattalin, ez naiz trufa gura,
 Othoi emazu laster oilasko bat susa.

Eguerdi pasatu eta oren bat harekin,
 Boltexurra heldu da arrolize batekin!
 Erraiten daularik: Orizu han, Pattin,
 Ongi izanen zare gaurko zu hunekin.

Zoin oilarrek errun du arroltze eder hau?
 Irents nintzazke batian holako hamalau!
 Jadanik pasatu ditut aski arin bi gau,
 Heldu den gauarentzat maska ona duk hau!

Eguna pasatu eta ethorri arratsa,
 Gau hortan amentsentzat ez nintzen ni lotsa,
 Etzen fite ethorri biharamun goiza,
 Beheiti jaitsi nintzen sendaturik ontsa.

Jadanik jastatu dut nik presondegi frango,
 Bainan orotan bazen zerbait asetzeko,
 Goitikuan azkar, beheitikuan flako,
 Ez nauk ni gehiago infirmeriako.

HOGOIGARREN URTHERA HARI NAIZ

(Gazte hiltzera dohanaren kantua)

Hogoigarren urthera hari naiz hurbiltzen,
 Eta nere oinetan tonba dut ikhusten.
 Ni zertako mundura ethorria nintzen?
 Ondikotz! ez sortzea neretzat hobe zen.

Sekulan zoriona zer den jakin gabe,
 Hainitz dut nik lurrean izan atsekabe.
 Lore sortu orduko histu baten pare,
 Biziaren uztera guti naiz herabe.

Ez-ez enau izitzen ez ni herioak,
 Laster khien dezadala bizia Jainkoak!
 Sehaskan galdu ditut nere burhasoak;
 Zer diren eztut jakin etxeko gozoak.

«Aita ama maiteak, zertako mundutik
 Zerura goan zineten ni hemen utzirik?
 Ez dut nik mundu huntan izan sosegurik,
 Ez baitut ezagutu amaren musurik».

Hamazazpi urthetan, zorigaitz dorphea!
 Izar bat maitatu dut parerik gabea;
 Aingeru bat zaiteken, zeruko umea;
 Nere bihotz eritik jua darot bakea.

«Nahiz aingeru ona, ez duzun sekulan
 Munduan jakin zenbat nik maite zintudan,
 Urus zarenaz geroz Jaunaren oinetan,
 Ez nezazula ahantz zure othoitzetan».

Anaia bat banuen haurra nintzelarik,
 Soldado jua zen eta nik ez dut berririk:
 Aita amekin dela ez daite dudarik,
 Niri begira daude hirurak zerutik.



Ahituz banarama nere oinhazeak,
 Burhasoen aldera deitzen nau zortheak,
 Nork ditu arthatuko, ait'ama maiteak,
 Zuen tonba gainean nik eman loreak?

Nere gorphutz flakoa lurrerat orduko.
 Nor othe da munduan nitaz orhoituko?
 Nere ehorts lekhura nor da hurbilduko?
 Lore berririk ez da neretzat sortuko!

Mendian ur xirripa, harrien artean,
 Auhen eta nigarrez jausten da bidean,
 Izan nahi bailuke zelhai ederrean...
 Hala nere egunak badohaz lurrean.

IKHUSTEN DUZU GOIZEAN

Ikhusten duzu goizean,
 Argia hasten denean,
 Menditto baten gainean,
 Etxe ttipitto aintzin xuri bat,
 Lau haitz ondoren erdian,
 Xakur xuri bat athean,
 Ithurriño bat aldean:
 Han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua,
 Maite dut nik sor-lekhua,
 Aiten aitek hautatua.
 Etxetik kanpo zait iduritzen
 Nonbeit naizela galdua,
 Nola han bainaiz sorthua,
 Han utziko dut mundua,
 Galtzen ez badut zentzua.

Etxean ditut nereak,
 Akilo, haitzur, goldeak;
 Uztarri eta hedeak;
 Jazko bihiezt, ditut oraino
 Zoko guziak betheak:
 Nola iragan urtheak
 Emaiten badu bertzeak
 Ez gaitu hilen goseak.

Landako hirur behiak,
 Esnez hanpatu ditiak,
 Ahatxe eta ergiak,
 Bi idi handi, kopeta zuri,
 Bizkar beltz, adar handiak.
 Zikiro, bildots guriak,
 Ahuntzak eta ardiak,
 Nereak dire guziak.



Ez da munduan gizonik,
 Erregerik ez printzerik,
 Ni bezein urusa denik;
 Badut andrea, badut semea,
 Badut alaba ere nik;
 Osasun ona batetik,
 Ontasun aski bertzetik;
 Zer behar dut gehiago nik?

Goizean hasiz lanean.
 Arratsa heldu denean,
 Nagusi naiz mahainean;
 Gristino bat ona dut hartu:
 Nik emaztea hartzean;
 Ez du mehe egunean
 Sarthuko uste gabean
 Xingar hezurrik eltzean.

Piarres ene semea,
 Nahiz oraino gaztea,
 Da muthiko bat ernea;
 Goizean goizik bazken erdira
 Badarama arthaldea;
 Segituz ene bidea,
 Nola baitu egitea,
 Ez du galduko etxea.

Ene alaba Kattalin,
 Bere hameka urthekin,
 Ongi doha amarekin:
 Begiak ditu, amak bezala,
 Zeru zola bezin urdin;
 Uste dut denborarekin,
 Oraiko itxurarekin,
 Andre on bat dion egin.

Ez dugu behar lurrean.
 Ongi bizirik etxean,
 Utzi laguna gosean;
 Ez du beharrak sekulan jotzen
 Gure etxeko athean,
 Non ez duen mahainean,
 Otruntza ordu denean.
 Lekhu bat gure aldean.

Ene andrea Maria,
 Ez da andre bat handia
 Bainan emazte garbia;
 Irri batentzat badut etxean
 Nik behar dudan guzia:
 Gald'egiten dut grazia,
 Dudan bezala hasia,
 Akhabatzeko bizia.



IRAGAN BESTA BIHARAMUNIAN

Iragan besta biharamunian,
Berek dakiten xoko batian,
Lau andre hirur mutxurdir, bat alarguna, jarriak itzalian,
Harri xabal bat belhaunen gainian,
Hari ziren, hari ziren trukian.

Zer othe duten nik jakin nahi
Pitxarrarekin bertze jaun hori;
Zorroa du biribila, moko mehea, tente xutik egoiki,
Xahako bat othe den nago ni,
Hanpatua, hanpatua ederki.

Jes! nik oraino zer dut ikhusten?
Zer hegalpean dute gordetzen?
Egoitza goxo hortarik, burua alto, xahakoaz trufatzen,
Bihotzez azkarrago zeren den,
Kuiattoa, kuiattoa ari zen.

Handik, ximiko, hemendik irri,
Haurrak bezala jostetan ari;
Gogotik ematen dute begi kolpe bat hegal pean denari;
Hitz bat erran gogo diote sarri
Beharrirat, beharrirat kuiari.

Seira truk dira zazpietarik,
Tantoz orobat bi aldetarik.
Xahakoa eroria da, mokoz iphurdi, naski odol husturik;
Kuiattoa han dago etzanik,
Azken hatsa, azken hatsa emanik.

Gezurrik gabe goazen, Maria;
Eman jokoan ezti ezti;
Hurbil zan untzi beltz hori, dezagun edan trago bat edo bia,
Bihotza dinat epheltzen hasia;
Harek zuen, harek zuen grazia.

Zahagiaren seme joria,
Nun duk axtiko zorro lodia?
Gaizoa, lehen birundan zurgatu dautek odolaren erdia!
Orai hor ago zimurrik arpegia.
Kokoriko, kokoriko jarria.

Nahiz zeraukan azken eskua,
Mariak zuen hasi gudua:
Truk. —Jo zan. —Mariak xango, Katixak xaldun, Marixumek hirua.
Mari-Martin, xoratu zain burua,
Lauarekin hiruaren keinua!

Ago, Maria, othoi, ixilik,
Ez dun ikhusi nere keinurik.
Xorta bat edanez geroz begiak ñirñir, zer ez dun ahalkerik?
Edan nezaken azkarren hortarik,
Gatilua, gatilua betherik.

Bazakinagu, tresna makurra,
Ezdunala hik hatsa laburra.
Ez dun, ez, dionan bezala huna xurgatuz biribildu muthurra,
Ez eta ere gorritu sudurra.
Milikatuz, milikatuz elhurra.

Apho mutxurdir moko biphila,
Zeren ondoan othe habila?
Hatz badun gibel aldean, ikhusiko dun zenbat naizen abila;
Xuhur badun, ago, neska xirtxila,
Ixil, ixil, ixil, ixil, ixila.

Kanak utzirik, eta tantoak,
Han zituzten han gero saltoak.
Bakharrik himen kontra, zer eginen du Man-Martin gaizoak?
Nahiz izan azkar zango besoak,
Hartu ditu, hartu ditu paloak.



Herriko besta arrats aphanian
 Lau gatu zahar anjelusian,
 Bat maingu, hirur saltoka, sorginak pujes! zohatzila bidian,
 Nik ikhusi ditut amets batian,
 Akhelarre, akhelarre gainian.

LEHEN ETA ORAI

Izan nauk ipharrera hego-aldetik,
 Iguzkiko partera mendebaletik;
 Eta diat ikusi guzien gainetik
 Inozenzia hainitz gizonen partetik.
 Abila hargatik
 Duk, egundainotik,
 Egin gabe deusik,
 Ederkiena bizi bertzen lanetik.

Munduan jarri huan injustizia
 Nagusitu zelakotz alferkeria.
 Zenbait abilek ez dik denbora handia
 Beretua zutela mundu hau guzia...
 Hik, laboraria,
 Eragin hazia
 Eta bil bihia?
 Abilarentzako huan ogi xuria.

Aditu diat ere bazka onenak
 Ez zituela zaldi nekatzen zenak;
 Oilo, oilasko eta oilanda gizenak
 Jaten ez zituztela hazten zituenak;
 Janari finenak,
 Arno gozoenak,
 Gauza hoberenak,
 Abilek zituztela iresten denak!

Sortzetik hiltzeraino, laboraria,
 Uztarri-pean huan hire tokia;
 Eta, beti lanean higatuz bizia,
 Hirerik ez ukeian non pausa erhia;
 Bertzena guzia.
 —Zer injustizia!
 Ikharagarria!—
 Azienden herrunkan hintzen jarria.



Hogoi mendez bedere hola munduan
 Gizona gizonaren esklabo huan.
 Abilek ezarria urrezko tronuan
 Bahuan bat errege guzien buruan
 Haren inguruan.
 Alferrak ituan
 Bizi deskantsuan.
 Eta gu lanarekin beti guduan.

Lagunak ez duk errex orai sinhesten
 Jenden inozentzia nolakoa zen:
 Erregeren nahia baldin hala ba zen,
 Miliunka zitian gizonak alxatzen,
 Harmak har-arazten,
 Lerroan ezartzen,
 Gerlarat igortzen...
 Eta han inozentek elgar xahutzen.

Zinez zorigaitzeko denbora hetan
 Nolako miseria zen bazterretan!
 Pobreak bilusikan non nahi bidetan
 Otzak eta goseak hilak erdietan.
 Zenbat ama, hetan.
 —Haurrak besoetan
 Gaxoak errestan—
 Alferrak libertzen jauregietan!!

Ethorri huan bada noizbait orena
 Gizona herrestatik alxatu uena
 Eta, porroskaturik gathe zakarkena,
 Bere gizon-dretxoak hartu zituena...
 Hau gure aitena
 Duk obra lehena
 Eta ederrena.
 Gizona esklabotik egin zutena.

Xoil ez dik ehun urte, lagun maiteak,
 Gizonaren herrunkan gure jartzeak.
 Lehen, batzu nagusi; esklabo bertzeak...
 Iduri aita baten ez ziren semeak (umeak).
 Geroztik jendeak
 Handiak, xumeak,
 Aberats, pobreak,
 Lerro berean gaitik jarri legeak.

Ala, dadin aberats ala pobrea,
 Gizona gizonaren duk haurridea;
 Eta gu goratzeko bertzen aphaltzea,
 Gure anaiari duk laido egitea.
 Elgar aditzea,
 Elgar maitatzea,
 Eta laguntzea,
 Hori duk egiazko Jainko-legea!!!



JAKINTSUNEN ARABERA

(«ZAPATAZAINA», «GIZON ZUHURRA»)

Jakintsunen arabera nor berak du berea,
Mundura sortu denean ekharri den zortea;
Jainkoak nahi bezala nik maite dut nerea,
Nahiz ez den jenden ustez zorionez bethea!

Zaharren erran ederrez nola bainaiz orhoitzen,
Trebese heldu diren gauzak nik zuzen ditut hartzen;
Aitak zautan irakatsi, gizon zuhurra baitzen,
Iritz hartuz zorigaitza zorion bilhakatzen!

Denbora heldu den gisa hartuz behar denean,
Aste guzia deramat bihotz onez lanean,
Argitik ilhuneraino bethi lekhu berean,
Bikhe, trukes, ezten eta martiluen artean.

Jarri banindu zortea erregeren tronuan,
Errege zen gerthatuko nere tresnak eskuan;
Galduko ginuen naski biek gure tratuan;
Egoatea hobe dugu beraz garen lekuan!

Zoroak ez duenaren bethi du gutizia;
Atsekabeen bizi da nahiz bertzen ongia.
Zuhur gisa nik baitakit labur dela bizia,
Iritz nahi dut iragan, ahal badut, guzia!

Maite duen zikoitzari nik uzten dut urhea,
Zilharrik ez dudanean aski baitut kobrea;
Nahiz izan aberatsek bizi-modu hobe,
Ez dute nik baino lehen akabatzen urtea.

Nere gisa zenbait bada, zorionez herrian,
Alegera bizi denik zuhurtasun handian;
Basoak eskuan eta hitz ederrak mihian,
Gu bezalako guti da zeruaren azpian!

Mahainen lagunekin naizenean jarria,
Naizela zait iduritzen munduko nagusia;
Gizonik aberatsena pobre bat da handia.
Guk bezala berak ontzen ez badaki bizia!

Jainkoak maita dezagun erran baitu... laguna,
Behar dugu lagunentzat egin ahal duguna;
Adixkidek arpegia dutenean ilhuna,
Gurekin ethorritz dute kausitzen osasuna!

Hiltzen naizen egunean adixkiden bilkura
Soka-dantzan ethor bedi ni lo nagon lekura;
Zuhurrenak bota betzat azken hitz hauk burura:
«Iritz leher egin-eta gan da bertze mundura!».



MILA BAT ZORTZI EHUN ETA...

(«ARBASOAK», «ESKUARA ETA ESKALDUNAK»)

Mila bat zortzi ehun eta
Lau etan hogoiean,
Bertsu berri hauk eman dire
Aire zahar batean;
Gure aitaso Kantabreak,
Lo baitaude lurpean.
Ez othe dire atzarriko,
Aire hau aditzean?

Mendi gainetik hasten banaiz
Khanta hunen khantatzen,
Oihan zokhotik, oiharzuna,
Zer dautak ihardesten?
Hobietarik aitasoak
Othe dire mintzatzen?
Zer haiteke, hi, oiharzuna.
Hekien oihua baizen?

Gure aitaso kantabreak,
Mende zaharrenetan,
Gu orai gisa hedatuak
Alhor hautan beretan,
Anaiak ziren: «Guziak bat»,
Mendien bi aldetan:
Jainkoa xoilki zen errege,
Eskualdun etxoletan.

Nork ez dituzke gure aiten
Balentriak aditu?
Zelhaietako zombat etsai
Hek ez zuten suntsitu
Semeak aita dik iduri,
Zeren nehork ez baitu
Bere herrian, egundaino,
Eskualduna garhaitu.

Larrun, Mundarrain, Altabizkar,
Zuen hegi muthurrak,
Mihise batek hila gisa;
Gorde ditik elhurrak;
Larru baletza orai ere
Azaletik haizurrak,
Ikhus gintzazkek agerian
Aita beren hezurak.

Erreka zepho zilhoetan
Bizi bada belea,
Toki goretan arranoak
Eiten du ohatzea;
Hala du mendi bizkarretan
Eskualdunak Etxea,
Biek handizki autelakotz
Maite libertatea!

Zer da liburu zaharrenek
Irakhasten dutena?
«Hurrunegitik heldu dela
Eskualdunen omena;
Ez dakitela noiztik duen
Euskuarak hastapena...».
Zeren Eskuara baita naski
Mintzoetan lehena.

Jakintsun batek, aditu dut,
Nonbait erran duela:
«Euskaldun izan baino lehen
Gu herdaldun ginela».
Ixilik ago ahal baduk!
To! Jakintsun ergela,
Ez erran guri arranoa
Beletik heldu dela!



«Hire amaren besoetan
Lo hagoen, haurtxoa,
Aingeruekin ametsetan.
Irriz hago, gaxoa;
Erregerentzat on badire
Phordoin eta khoroa,
Hobeago duk hiretako
Amattoren altzoa!...».

Nola birundan arbolari
Da segitzen itzala,
Bakhotxak hala sor-lekhua
Bethi maitha dezala!
Anaiak gaituk Eskualdunak,
Orai ere, oxala,
Jartzen bagine «Guziak bat»
Lehenago bezala!

APEXA ETA LOREA

Neguaz primadera zenean jabetu,
Sasi baten hegian apexa zen sortu;
Lekhu berean baitzen lorea gerthatu,
Gaixoez elgar zuten bihotzez maithatu!

Iguzkiak ihintza pizten duenean,
Apexa doha bethi hegalez airean;
Nahi luke loreak segitu bidean,
Girthoinak zertako du gelditzen lurrean?

L.— «Nere besoak ditik ihintzak zerrutzen,
Ondikotz! iguzkiak goizean urratzen!
Zertako haiz hi bethi nitarik urrunten?
Hi guan eta badakik, nigarrez nauk hurtzen».

A.— «Zertako nigar egin, o lili maitea?
Egunaz iguzkia dun nere jabea;
Goizetik lorez lore dinat nik bidea;
Iguzkia sartzean bethi naun hirea...».

L.— «Goiz guziez adio, arratsean agur,
Egunak luze dituk, gauak aldiz labur;
Nere nigarrez, othoi, ez hadila samur,
Zeren hire galtzeaz bethi nauk ni beldur...».

Iguzkiak, goiz batez, zenean agertu,
Lorearen besoak zituen urratu;
Bi maitek zutenean elgar besarkatu.
Apexak haizeari hegalak hedatu.

«Haize bihotz gabea zertako herritik
Ereman duk apexa mendien gainetik?
Zertako duk urrundu maitearen ganik?
Hegaztin gaixo horrek ez zian hobenik».



«Apex hegal flakoa, geldi hadi, geldi;
 Utziz bozkarioa, doluan sar hadi:
 Zertako haiz fidatu haize gaixtoari?
 Lorearen gainera lurra duk itzuli!...

A.— «Maitia, kausitzen hut lurrez eztalia!
 Jainkoak bere ganat deithu hau, lilia!
 Hi lurreko hindudan sosegu guzia;
 Hil haiz!... Orai neretzat deus ez dun bizia».

Oraino iguzkia zohan inguruan
 Apexa zenean hil bere sor lekhuana...
 Izan baitzuen aski zorigaitz munduan,
 Agian Lorea du kausitu zeruan!...

AINGERU BATI

Maite dut eta ezin erran
 Aingeru bat maite dudala
 Zeru garbiak arratsean
 Izarra maite duen bezala!
 Zer! ez da bada zorigaitza,
 Mintzatu nahi, ezin mintza?
 Non nahi naizen, gogoan dut
 Gauaz, egunaz, aingeru hori;
 Urrundik frango xede badut,
 Bainan hurbildik ezin atrebi!
 Hurbildik ezin atrebi!

Hurbildu-eta ez naiteke atrebi!
 Igande bat zen ikhustean
 Nik aingerua lehen aldikotz;
 Haren itxura bihotzean
 Geroztik hor dut eta bethikotz!
 Meza zen hari aldarean,
 Belhauniko zen othoitzean,
 Gero behatuz zeruari
 Agur ezti bat egorri zuen
 Aingeru bere lagunari...
 Ordu beretik maithatu nuen!
 Orduan maithatu nuen
 Ondikotz! nik orduan maithatu nuen!

Ez! gehiago mundu huntan
 Esperantzarik ez da neretzat!
 Hura hain gora! ni herrestan!
 Nola gaitezke gu elgarrentzat?
 Lurra gizonen da lekua,
 Aingeruena da zerua;
 Zertako zare zu zerutik
 Lurrera jautsi, nere maitea!



Eta zertako bihotzetik
 Hola dautazu khendu bakhea?
 Zertako, nere maitea,
 Khendu dautazu bihotzetik bakea?

Ur-ondotik osto-pean
 Ikharan dago gaxo lantxurda;
 Haize dorpeak ematean
 Ohi beltzarat eror beldur da.
 Maitea zutaz oroitzean
 Beldur bera dut bihotzean;
 Garbia zare, oi! behautzu
 Lohirat eror, zuk, aingerua!
 Ez beha lurra! beha zazu
 Lurra ihesiz, beha zerua!
 Ba! behautzu aingerua!
 Ez beha lurra, behazazu zerua!

BIBA FRANTZIA!

Nola guk erran egun, Frantzia.
 Gu hire haurren alegantzia?
 Ama ginian hitan heria
 Etsaiek hiltzat utzia;
 Hek xurgaturik odol guzia
 Apal hindagon eroria;
 Xutitu bait haiz orai, Herria,
 Biba! Biba! Frantzia!

Urte guti du, gau ilhun batez,
 Lo zagolarik bere ohatzean,
 Arrano bati lotu zirela
 Berreun bele batean.
 Bentzutu zuten; ezin atxiki
 Hoinbertze etsai beltzen artean.
 Hegal bat ere kendurik utzi...
 Halare dabil airean.

Orai ikusiz arrano hori
 Ez duela hil heien kolpeak
 Bainan goratuz dohala bethi
 Ikharan daude beleak,
 Denborarekin arrano horrek
 Izanen ditik egun hobeak;
 Ethorriko duk bertzen orena
 Ezen baditik umeak.

Frantzes herria laister halare
 Goratuko da lehen bezala;
 Umek amari bai ekharriko
 Belek ebatsitako hegala.
 Indar guziak bertan ezarriz
 Nork erranen du gure ahala?
 Frantzes guziek elgar adituz
 Jainkoak adi nezala!



URRUNDIK IKHUSTEN DUT

Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia,
Beraren gibelean baitut nik herria;
Jadanik dut aditzen, zorion handia!
Ezkila maitearen hasperen ezta.

Ezkila, zer othe duk hik egun erraten?
Urrunera zer berri othe duk igortzen?
Mendiek hedoiptetik dautek ihardesten,
Hik errana zerura ditek helarazten.

Landako langilea, artzain mendikoa,
Ithurriko bidean dohan neskatoa,
Aditurik, ezkila, hire boz lainoa,
Othoizten hasi dituk Ama zerukoa.

Nik ere dut othoizten Birjina Maria.
Baserrietan galdu haurren gidaria;
Neretzat othoi dezan ardiets grazia,
Bakean kausitzeko nik egun Herria.

Mendiak utzi ditut urrun gibelean,
Herria dut ikhusten jadanik aldean.
Zer duk, ene bihotza, saltoka barnean?
Othe duk huts eginen herrira heltzean?

Agur, agur, herria! Agur, sor-lekua!
Agur, nere hurreko lekhu maitatua!
Jainkoak aditurik haur baten oihua,
Hire ganat duk haur bat egun hurbildua.

Mendiaren hegitik hartuz zeiharrera,
Iduri xingola bat, aldapa behera,
Bidexka, hi xuxen haiz jausten zelaiera,
Xuxen ereman nezak ahaiden artera.

Bide hegiko haitza, zenbatez haurrean,
Igandetan mezatik etxera sartzean,
Zenbatez ez nauk jarri, amaren aldean,
Hire adar lodiek egin itzalean!

Baratze gibelesko elhorri xuria,
Bethi duk begiratzen hurreko tokia.
Hik bezala zertako, aldaska garbia;
Ez diat sor-lekhuan higatzen bizia?

Bainan nere begitik nigar bat da jausten;
Bozkarioak darot bihotza gaintitzen;
Etxekoen boza dut jadanik aditzen.
Jainkoa, darozkitzut eskerrak bihurtzen!

Ezkila, berriz diat bihotzean pena,
Herritik urruntzean bakotxak duena;
Neretzat hik baihuen jo lehen orena,
Agian hik orobat joko duk azkena.



ZEIN EDER DEN ARRATSEAN

(«MAITE ZAITUT»)

Zein eder den arratsean
Izar arte garbia,
Ipharretik agertzean
Marinelen argia!
Bai handizki eder dago
Zeru zola handia!...
Zu miletan ederrago,
Nere maite Maria!

Izarrak dire zeruko
Aingeruen begiak
Gizonen begiratzeko
Jainkoak ezarriak;
Zu bixtarat agertzean
Histuz beren argia,
Sartzen dire ilhunpean,
Nere maite Maria.

Ez du hain lakhet izarrak
Egon lekhu berea,
Primaderan ez erleak
Baratzeko lorea,
Ez du hala argi-albak
Loriatzen xoria,
Nola ni zu ikhustek,
Ene maite Maria.

Maria, zure aldera
Hurbildu bezein sarri.
«Maite zaitut» erratera
Ez naiteke atrebi:
Pilpira bat bihotzean
Beldur bainaiz abia,
«Maite zaitut» erratean.
Nere maite Maria.

XORI BERRIKETARIA

Sorlekua utziz geroz
Ondikotz, hala bearrez,
Yanko ona urrikalduz
Betiko nere nigarrez
Primadera hasi orduko
Arbolak estaltzen lorez,
Xoritto bat heldu da beti
Nere erritik egalez.

Neregana hain urrundik
Etortzean unatua,
Arbolarik urbillena
Du bere pausa lekua.
Aldazka goren-gorenan
Orra non den lokhartua:
Lumapean zango bat eta
Hegalpean du burua.

Pausa adi! lo egizak,
xori maitea bakean;
Atzarriak hi hire zain
Hemen nauk hire aldean.
Ur-xortakin huna hemen
Papurrak leio-gaiean;
Bainan gero hango berriez
Oroit adi atzartzean.

Orhoit adi, bai, xoria,
Herri maiteko berriez.
Nere aita, nere ama,
Nigarretan nik utziez.
Mintza akit ahaidez eta,
Mintza lagun on ekiez:
Mintza nehor antzi gabe
Maite ninduten guziez.



Atzar adi, atzar bada,
berriketari habila;
Nere beldur izan gabe
Yauts adi urbil-urbila.
Erran, lehiora izan haizen,
Erradak isil-isila,
Izan ere hunatekoan
Solas-ordainaren bila.

Xoria, lo agolarik,
Ikaran nagok aidean;
Ez al da zorigaitzarik
Maite nautenen artean.
Hala balitz, othoi xori,
Berriz herrirat heltzean,
Loretto bat nigar batekin
Pausa zak tinba gainean.

Yainkoaren ontasunak
Ez au ahantzi xoria
Non nai kausitzen duk
Aise ire janaria.
Zer behar duk? Ur xortatto bat
Bihitto bat edo bia,
Ordainez duk alegeratzen
Kantaz hik oihan guzia.

Xorittoa yoan denean
Hostoen eror denboran
Berriz ethor ez dadien
Nago beldurrez ikharan.
Ihiztaria, hartzen baiduk
Ene xoria segadan,
Utzak, othoi, gaxoa libro
Berriak ekhar detzadan.